

PRENTSA-OHARRA

Joan den uztailaren 6an, Flamasats enpresak jakinarazi zuen ez zuela aurrera eginen bere hedatze planarekin, hots, Agoitzen lantegia martxan jartzearekin. Puig familiaren enpresa taldeak baztertu du Agoitzen pizgailuak egiteko proiektua.

Flamasatsek eskatuta, uztailaren 4an Gobernuarekin, Sodenarekin eta Udal honekin egindako bileran, erabaki horren berri eman ziguten, ekoizteko karga nabarmen jaitsi zela argudiatuz.

Erabaki guztiz ulertezin eta logikarik gabeko horrek oso egoera delikatuan utzi ditu, beste behin ere, Agoitz eta eskualde osoa, eta atzera egite handia da, industriagintzaren garapenari dagokionez.

Duela urte eta erdi (2023ko otsaila), Flamasatsek baieztago zuten Siemens-Gamesaren nabeak erosi zituela, pizgailu planta bat sortzeko. Aurreikusitako inbertsioa 40 milioi euro ingurukoa zen, eta 250 bat lanpostu sortuko ziren. Nafarroako Gobernuak foru intereskotzat jo zuen proiektua, eta Ingurumen Baimen Bateratua eman zion, hain zuzen ere, proiektua erretiratuko zela iragarri baino astebete lehenago. Une horretatik aurrera, baimen guztiak zituen egokitze lanak egiteko eta ekoizpen lineak martxan jartzeko.

Albiste oso txarra da Agoitzentzat eta bere eskualdearentzat, eta duela 4 urte Siemens-Gamesa itxi zutenean genuen egoera berberara eraman gaitu. Gogoratu behar da Siemens-Gamesa itxitakoan (239 langile kalean gelditu ziren) palak birziklatzeko planta bat egiteko proiektua planteatu zela, baina horrek ere huts egin zuela, azkenean Nafarroako Erriberan kokatu zelako. Etsipena, berriz ere!

Nafarroako Gobernuaren agandan lehentasuna izan behar du Agoitzen eta eskualdean industria bultzatzea, eta egoera zail honetatik ateratzeko ahalik eta azkarren lan egin behar dugu.

Horregatik guztiagatik, eskatzen dugu nabe horietara proiektu berri bat erakartzeko lan egitea; aldi berean, finantza erakundeen esku dagoen industria lurzorua (40.000 m² baino gehiago) publiko bihurtzea, Madergia enpresarekin egin den bezala, dibertsifikatzeko eta beste enpresa batzuk erakartzeko.

Halaber, adierazi nahi dugu une honetatik bertatik Gobernuarekin lan egiteko prest gaudela, egoera honi buelta ematen saiatzeko. Izan ere, zaplastako handia izan da herriarentzat eta eskualdearentzat, lan eskasia behingoz bukatzeko itxaropena zapuztu duelako.

Agoizko eta eskualdeko bizilagunei jakinarazi nahi diet udalak atsedenik hartu gabe jarraituko duela, egoera hau zuzentzeko eta Agoizko industrialdea biziberritzeko.

Agoizko Alkatea

Angel Martin Unzue Ayanz

NOTA DE PRENSA

El pasado 6 de julio, la empresa Flamasats comunicó la decisión de no seguir adelante con su proyecto de expansión en la planta de Aoiz. El grupo de la familia Puig se retira del proyecto de la fábrica de encendedores que se iba a instalar en Aoiz.

En una reunión mantenida el 4 de julio a petición de Flamasats entre el Gobierno, Sodena y este Ayuntamiento, se nos comunicó dicha decisión argumentando una importante bajada en su carga de producción.

Esta decisión totalmente inexplicable y carente de toda lógica una vez más nos sitúa a Aoiz y esta comarca en una situación muy delicada y de auténtico retroceso a nivel industrial.

Hace apenas un año y medio (febrero de 2023) Flamasats confirmó la adquisición de las naves de Siemens-Gamesa para crear una planta de encendedores, la inversión prevista rondaba los 40 millones de euros y se generaban en torno a 250 empleos. El Gobierno de Navarra declaró el proyecto de interés foral y justo una semana antes de anunciarnos la retirada del mismo concedió la Autorización Ambiental Unificada; a partir de este momento ya disponían de todos los permisos para ejecutar las obras de adecuación y poner en marcha las líneas productivas.

Es una pésima noticia para Aoiz y su comarca, y nos retrotrae a la casilla de salida de hace 4 años con el cierre de entonces de Siemens-Gamesa. Hay que recordar que al cierre de Siemens-Gamesa, con el despido de 239 trabajadores y trabajadoras, le siguió el proyecto de una planta de reciclaje de palas que finalmente se ubicó en la ribera de Navarra suponiendo una gran frustración y ahora esto!!!!.

Aoiz y su comarca debe ser prioritario en la agenda del Gobierno de Navarra para su reindustrialización y debemos trabajar lo más inmediatamente posible para dar salida a esta difícil situación.

Es por ello que solicitamos que se trabaje en la atracción de un nuevo proyecto a estas naves y en paralelo el suelo industrial que está en manos de entidades financieras (más de 40.000 m²) se reconvierta en suelo público para así poder diversificar y atraer a otras posibles empresas como así ha ocurrido con la empresa Madergia.

Para ello, mostramos nuestra disposición a trabajar desde ya con el Gobierno para intentar revertir esta situación que sin duda supone una vez más un jarro de agua fría en las esperanzas de esta localidad y comarca tan duramente castigada.

Quiero trasladar a los vecinos y vecinas de Aoiz y la comarca que desde el ayuntamiento nos vamos a dejar la piel para intentar revertir esta situación y posibilitar la reindustrialización del polígono de Aoiz.

Alcalde de Aoiz

Angel Martin Unzue Ayanz